



NORBERAREN EKINEZ

Asko dira krisi garaian autoenpleguaren aldeko hautua egin dutenak, eta negozio berriak zabaldu dituztenak 20



HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.


INNOVA
HORTZ KLINIKA



Smart Retail sistema berria



AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



HEZKUNTZA ERALDATZEN

- Hezkuntza eredu propioa
- Euskalduna
- Herritarra
- Eraldatzailea

MATRIKULAZIOA
maiatzaren 2tik 12ra

ETORKIZUNA ESKURA

azpeitiko **ikastola**

Ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio Hiribidea 26, 20730 Azpeitia

Tel.: 943 15 12 46

www.azpeitikoikastola.eus

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 194.a (2017ko maiatza)
Urtea. XVIII.a (1999ko azaroen sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
uztarria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. M. Etxaniz/A. Uranga
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak (erakunde
publikoak)



Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarrria ez du bere gain hartzen
aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

||| 2017KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



04

iritzia

Inkesta. Urtean zehar
oporrak noiz dituzu
nahiena? **13**

mamia

Elkarrizketa. Daniela
Dominguez Azpeitian
bizi den suhiltzaile
argentinarrarekin
solasean **04**
Klik! Odol emailen
errealitatea, barrutik

16

**Espetxea eta
aitatasuna.** Joseba
Segurola preso aita
izan berri da **26**

jakiteko

Atzera begira. Nerea
Eskulanak dendak
urrezko ezteiak ditu
maiatzean **34**



16



34

Ba aL dakizu errenta aitortpenen %40,14
(3.027) egin zireLa euskaraz iaz Azpeitian,
2014an baino ia 7 puntu gehiago? **Uztarrria**

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia
txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro
gara Uztarrria Komunikazio **dira** urtean.
Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

DANIELA DOMINGUEZ

suhiltzailea

“Integratzeko bidea irekitzen du euskarak”

Argentinatik Madrilera joan eta handik Azpeitira etorri ostean, euskara ikasi eta Oñatin suhiltzaile lanetan ari da 2013az geroztik. ✍️📷 Nora Alberdi

Gipuzkoan hiru dira emakume suhiltzaileak. Horietako bat da Daniela Dominguez, eta Oñatiko parkean egiten du lan, beste hiru lagunekin batera. Familiarekin eta lagunekin hitz eginez ikasi du euskara.

Zerk ekarri zintuen Azpeitira?

Familiarekin etorri nintzen, duela hamabost urte. Ama lan kontuengatik etorri zen Azpeitira, eta ahizpa eta biok haren atzetik. 30 urte nituen hona iritsi nintzenean. Halere, Argentinatik Madrilera joan ginen aurrena, eta han zazpi urtez bizi izan nintzen.

Euskara ikasi duzu.

Bai, hala da. Ingalaterrara joango banintz, ingelesa ikasiko nuke. Azpeitiko eta Euskal Herriko hiz-

kuntza euskara da, eta beharrezkoa iruditzen zait ikastea. Integratzeko bidea irekitzen du euskarak, jendea gehiago irekitzen da euskara dakizula ikustean. Halere, iritsi nintzenean harrera ona egin zidan jendeak. Hizkuntzekin ez naiz oso ondo moldatzen, baina senarra, alabak eta lagunak euskaldunak izateak lagundu dit, eta lortu dut euskara pixka bat menperatzea. Ez naiz lotsatia, eta berdin zait zerbait gaizki esaten badut. Izan ere, ingurukoek egiten dizkidate zuzenketak, eta horrela lortu dut euskara maila hobetzea. Bi urte igaro nituen euskaltegian, baina alabekin ikasi dut gehien.

Zaila egin al zaizu euskara ikastea?

|||**DATUAK**||||||||||||||

|||**Jaio.** 1972ko urtarrilak 17.

|||**Herria.** Buenos Aires (Argentina). |||**Bizi tokia.**

Azpeitia. |||**Lanbidea.** Suhiltzailea.

Zaila egin zitzaidan gaztelaniak eta euskarak ez dutelako zerikusirik. Baina hemengo herritarren, lagunen eta familiakoen laguntzarekin, euskaltegira joanda eta gogoia jarrita, lortu dut euskara ikastea.

Azpeitira iritsi aurretik ezagutzen al zenuen Euskal Herria?

Ez. Azpeitira iristean, harrিতuta gelditu nintzen tokiarekin eta hizkuntzarekin. Asko gustatu zitzaizkidan bai paisaia eta bai jendearen umorea. Madrilen bizi nintze-

nean ez nuen Euskal Herrian gertatzen zenaren berri, eta oportetara Espainia hegoaldera joateko ohitura genuen.

Nolatan suhiltzaile?

Urte askoan legez kanpoko egoeran bizi izan nintzen, ez nuen hiritartasun baimenik. Amak, Espainiako gizon batekin ezkondu zelako, eta, ahizpak, gazteagoa zelako, lortu zuten baimena, baina nik ez. Senarra ezagutu eta haurra izan genuenean, egoera horretan ezin nuela jarraitu erabaki nuen, arriskutsua zelako. Hala, ezkondu egin nintzen, eta urtebetera lortu nuen baimena. Legez kanpoko egoeran egon nintzenean, lan guztietan beltzean ordaintzen zidaten, eta baldintza oso prekarioetan aritzen nintzen. Hiritartasu-



na lortu nuenean, gustuko lana aurkitzen hasia erabaki nuen. Egunkaria ireki eta suhiltzaileak behar zituztela irakurri nuen egun batean, eta oposaketak prestatzen hasi nintzen. Gero, 2013an hasi nintzen lanean.

Lan gogorra izango da suhiltzailearena, ezta?

Bai, baina egiten duen lana maite duen jendea behar du munduak, eta ni gustura sentitzen naiz suhiltzaile lanetan. Fisikoki gogorra da, traje handiarekin korrika

egin behar izaten dugulako. Psikologikoki ere ez da lan arina, askotan, larri dauden pertsoneri lagundu behar izaten diegulako. **Une gogorak bizitzea tokatuko zitzazun...**

Gure lanbidean bizitzen ditugun egoera guztiak gogorak dira, erantzunkizun handia dugu. Behin egokitu zitzaidan ezbeharraren tokira joan, eta hirugarren mailako erredurak zituen gizon bati lagundu behar izan nion. Gizon hark zauri handiak zituen, baina ez zen kekatzen, minik ez baitzuen sentitzen. Gertaera hura buruan gelditu zitzaidan, esan dezaket bizitzea egokitu zaidan esperientziarik gogorrena izan zela. **Emakumea eta suhiltzailea. Oraindik ez da oso ohikoa emakumeak lanbide horretan aritzea.**

Hala da. Nik normal jokatzan dut, baina ingurukoek ez dute oraindik normaltzat hartzen ni suhiltzaile izatea. Argentinan, Bigarren Hezkuntza teknikoan egin nuen, eta ni izan nintzen ikastetxe hartan arlo teknikoan egin zuen lehen neska. 13 urte nituen, eta klasekide guztiak mutilak ziren. Horrenbestez, normala da niretzat mutilez inguraturik lan egitea. Halere, inguruan bada emakumea eta suhiltzailea izatea ulertzen ez duenik. Gertatu izan zait istripu batera joan eta lankideei edo niri gainerakoan lan berdina egiten al dudan galdetzea.

Zergatik uste duzu horren emakume gutxi direla suhiltzaile?

Orain arte, gizonezkoen lanbidea izan da suhiltzaileena, eta gure gainetik daudenek ez dute ezer egiten egoera aldatzeko. Horrek ere eragin du emakume suhiltzai-

“Normala da niretzat mutilez inguraturik lan egitea”

“Orain arte, gizonezkoen lanbidea izan da suhiltzaileena”

leen kopurua hain txikia izatea. Horrez gain, suhiltzaile izan aurretik, egin behar diren proba fisikoak berdinak dira emakumeentzat eta gizonentzat, baina ezaugarri fisiko desberdinak ditugu, emakume batek ezin du gizonezko batek bezala egin korrika, eta hori kontuan hartzea beharrezkoa da. Irizpide batzuk zehaztu beharko litzukete probak orekatzeko.

Inoiz jarri dizute trabarik emakume izateagatik?

Ez. Lankideek pixkanaka ikasi dute, orain arte gizonek egiten zuten lana bakarrik zelako. Esaterako, mahai bat jaso behar badugu berdin dio emakumea edo gizona izan. Lehen, ez zegoen karmioia gidatzen zuen emakumerik, eta, egun, berriz, bai; berdin-berdin gidatzen dute.

Lanbide batzuk emakumeentzat eta besteak gizonentzat direla uste duten horiei zer esango zenieke?

Oso itxia den jendea badago oraindik. Lehen, asko ziren horrela pentsatzen zutenak, baina, pixkanaka-pixkanaka, guztion artean, ari gara jendeari burua irekitzen. Hala ere, informazio falta eta ezjakintasuna nabarmenak dira oraindik ere.*

Ziur autoak behar duen odobertarako!

AIZPURU AUTOAK

PREZIO IZUGARRI

Tel: 943 91 23 69
Fax: 943 91 22 81

aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net

Amatzen 17, 20720 AIZPEITIA

Esperientzia duen higienista behar dugu gure Azpeitiko hortz-klinikan lan egiteko
Interesa izanez gero bidali CV
innovaazpeitia@gmail.com helbidera

Ekarri egurra

Marx anaiak trenari egurra botatzen hasi ziren eszena zoragarrian, aurrena, horretarako prestatuta zegoen bagoitik egur zatiak hartu eta egurra eskutik eskura pasatzen aritu ziren lokomotorara iritsi arte. Erritmo itzelean jardun zuten lanean, eta, berehala, agortu zuten labera botatzeko prestatuta zegoen egur guztia.

Hori horrela, trenak aurrera egin ahal izateko bagoien zorua, aulkiak eta erretzeko modukoa zen guztia bota zuten sutara. Ekin eta ekin, trena biluzik geratu zen arte jarraitu zuten. Ondorioz, soilik burdinezko egitura geratu zen sugarretatik salbu. Bien bitartean, Grounchok "ekarri egurra" oihukatzen zuen.

Hori izan liteke egungo politika azaltzeko metafora egokia; alegia, aurrera egiteko dena erre behar da, osterantzean, besteak baino makalago izateko arriskuan dago. Beraz, herritarrak egurra eskatu eta agintariak sutara bota egur hori. Beste era batera esanda, herritarrak erraustegiaren aldeko kanpaina egin dutenei boza eman, eta politikari zintzoak eraiki.

Agian, norbait ez da ados egongo esan dudanarekin, eta pentsatuko du politikariek sortzen dituztela beharrak. Horrela, herritarrak inolako pentsatzeko betarik hartu gabe eta manipulazioaren menpe, alderdikieretan erortzen direla; hots, politikariak zaborra eskatu eta herritar zintzoak zaborra eman erraustegia goraino bete ahal izateko.

Bada, ordea, hirugarren aukera bat ere. Kasu horretan, zenbaitek uste dute enpresak direla, lanaz gain, boterea dutenak, eta esku pribatua dela politikariaren hariak mugitzen dituenak. Ondorioz, politikariak enpresarien eta herritar langileen arteko kudeatzaileak ei dira; hau da, enpresek sutarako materiala eskatu, eta politikariak materiala lortu eta herritarrak ekarri.

Kontzientziazioa ekiditen da

Dena den, badira aukera gehiago ere; bako-



egoitz arruti

Ekonomia zirkularraren ideia gure artean zabaltzen ari den bitartean, aurrera doaz erraustegiaren lanak


tzak pentsa dezala nahi duena. Nik, inork galdetu ez didan arren, ez dut nahi erraustegirik. Uste dut gizartea ohituegi dagoela arazoak ezkutatzera, eta, besterik gabe, ikusten ez diren gas bihurtzera. Badirudi, begien aurrean ikusten ez dugunean, ez zaigula axola gertatzen dena; izan ere, suak materia aldatzen du, ikusezin egiten du, baina ikusten ez dena ez al da kaltegarria? Gainera, desagertzeak badu beste arazo larri bat: kontzientziazioa ekiditea. Ildo horretatik, arazoa ezkutatzen bada, nola kontzientziatu zaborren arazoaz, gehiegizko kontsumoaz, berrerabilpenaz edo birziklatzearen garrantziaz? Ziurrenik, ez da komeni beharrezkoa soilik erosten duen gizartea, eta ezta berrerabiltzearen politika sustatzen duena ere. Ulergaitza dirudien arren, ekonomia zirkularraren ideia gure artean zabaltzen ari den bitartean, aurrera doaz erraustegiaren lanak.

Euskal Herriaren altxorrik handiena da egun berean ikustea egunsentia mendi ton-toretetik, eta ilunabarra hondartzatik. Noiz arte iraungo du naturak? Biluzik geratzen ari gara, Marx anaien trenaren moduan.✘



ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politikerara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



Mari Karmen,
donostiarra.
Erretiratua.

- A 8 milioi € Pasaialdean biziberritzeko.
- B 5.000 pertsonak laguntza jasotzen dute etxean. Atsedean programak zaintzailearentzako.
- C Erreferentziazko Zahartze eta Osasun Zentro Aurreratuaren sorrera Pasalan.
- D Lurraldebus: erretiratuentzat tarifa bereziak, %100eko hobariekin.
- E Mendekotasun laguntzak jasotzen dituzte 16.000 pertsonak hilabetero.
- F Kultur ekitaldi handiei laguntza: Zinemaldia, Jazzaldia...

Gure kale estua

Munduko kale estuak. Zibilizazioa, natura, pertsonak, kez betetako errepideak eta lorez jantzitako belardiak batzen eta banantzen dituzten kale estuak. Europako korridore estuek xarma berezia dute, hiri serioen artean kolorea ematen diotelako bizitzari: merkatu txikiak, familia-dendak, behatz puntekin ukitzean latzak diren galtzadak. Erroma bere kale estuek bizi dute, Berlini harri puska horiek ematen diote galdu gabeko nortasuna eta Brujasen, ilunpetan ere, hiriaren kolorea dira. Eta ezin ditugu aipatu gabe utzi Iparraldeko kale estuak, euskara entzuten ez den txoko askotan usaindu egin daiteke hizkuntza alde bateko eta besteko hormetan, oihartzuna mutua balitz bezala. Kale estuek liluratzen naute, handitasunean txikia zein ederra izan daitekeen erakusten digutelako; bizitzeko eredu berriek iraganarekin lotura behar dutela esaten digutelako.

Guk ere badugu gure kale estua. Egiaz, kale estu bat baino gehiago ditugu Azpeitian; eta, jakina, pertsona eta auzo bakoitzak ditu bere txoko magikoak, izan Sanjuandegin, Urrestillan edo Nuarben. Dena den, bada bat ia guztion bizitzan eta bihotzean bere lekua duena. Erdikalean egin genuen herriko gure lehen parranda, San Sebastian jai haietan; kale estu horretan pasatu ditugu orduak eta orduak garagardoa edaten, eta mundua mugiarazten duten hiru gauza horiez hizketan. Zenbat musu eman ditugun kale estu horretan, eta zenbat azalpen, besarkada eta negar. Kale estu horretan hasten dugu urtea behin eta berriro; eta ostegunero elkartzen gara kuadrillan, elkar ikusteko aitzakiaren bat behar bagenu bezala. Zenbat pertsona ezagutu ditugun, etxeakoak eta kanpokoak, nahi gabe edo intentzior. Ez gara kafe gutxi hartutakoak, ezta edalontzi eskas puskatutakoak ere. Umetatik egonaldiak Leireren portalean; eta nerabetatik inguruko tabernetako terrazetan.

Gure kale estua ere badugu, Europako hiri



eneritz albizu lizasoli


Kale estuek liluratzen naute, handitasunean txikia zein ederra izan daitekeen erakusten digutelako

xarmangarrienen antzera. Guk ere eraikin, denda eta errepide modernoak ditugu, baina kale estu horrek gu izatearen arnasa ematen digu. Zer esanik ez inauteri zaleentzat: Elegante Eguneko zezenaren irteera eta astelehen karnabaleko gaupaseroen kalejira. Jai guztietan, udal musika bandak ere alderik alde hartzen du kalea, eta musikarekin betetzen ditu hutsik gelditzen diren tarte guztiak. Gure kale estuak handi egiten gaitu batzuetan. Aldatuko gara, aldatuko dira; baina kale estu horiek helduko diote gure izaerari.

Ez naiz itoko

Eta neu ere, badira pare bat urte kale estu horretan egiten dudala lo, gehientsuenetan behintzat. Otu zait ez ote den nire bizitza ere kale estu bihurtu, norabide gabeko hiri batean nire burua aurkitu asmoz-edo. Batzuetan hormak oso sentitzen ditut hurbil; eta, besteetan, emozioa ez zait kabitzen kale estu horretan.

Haizeak ere fin jotzen du kanpoan eta barruan, eta babesik gabe sentitza ere tokatuko zait. Hori ote da nire lekua. Dena den, badakizue kale estuak bi plaza dituela goian eta behean, mundura irekiak; eta zero zabala, burua altxatuz gero. Ez naiz itoko. Eta, jakina, bizitza egunero alda daiteke kale estu honean, Europako herrialdeetan, Azpeitian eta zeure baitan.✱



“Jendearekin izaten ari naizen tratua azpimarratuko nuke”

Bi hilabete dira Joxe Mari Aranburuk (Donostia, 1982) FullGass Sport Nutrition denda Azpeitian ireki zuenetik. Aurretik, Full Gassek Donostian eta Alegian dituen dendetan aritutakoa da Aranburu, eta duela gutxi egin zuen kirolerako duen afizioa ofizio bilakatzeko urra-tsa.

FullGassek, besteak beste, Athletic, Eibar, Alaves, Bilbao Basket nahiz Bidasoa eskubaloitaldeko kirolarien elikadura osagarritzeko produktuak hornitzen ditu. Horrez gain, *Gailurra Xtrem* ETB1eko telebista saioan ere ikus daitezke marka honetako produktuak. Gainera, mendi lasterketak, zikloturisten probak eta kirol talde batzuk babesten ditu etxe honek; Murias Team, esaterako.

Zer aurki daiteke FullGass-en?

Kirolerako osagarrien eta bitaminen denda da FullGass. Kirola egin aurretik edo ondoren hartzeko hainbat eta hainbat produktu aurki daitezke bertan. Osasuna zainduta, kirolerako osagarri diren produktu bitami-

nikoen sorta zabala eskaintzen dugu, hala nola entrenamendu aurreko produktu indartzaileak, kirola egiterakoan laguntzen duten barra energetikoak, gelak, gatzak nahiz bestelako produktuak eta errekupeztzaileak. Horiez gain, muskulazioarentzat proteinak nahiz erresistentzia handiko proben ostean hartu beharreko errekupeztzaileak ditugu.

Kirolariek zer onura lor ditzakete produktu horiekin?

Besteak beste, oso ohikoa da erresistentzia luzeko probetan kalanbreak sentitzea, eta horiek

“Osasuna eta elikadura zaindu nahi duen ororentzat ditugu produktuak”

ekiditeko produktuak edo errekupeztzaileak hobetzekoak eskaintzen ditugu. Era berean, igerilariet, triatletek, zikloturistek... izan ohi duten gastu energetiko handia berreskuratzen laguntzen dieten produktuak ere baditugu.

Beraz, kirolariei soilik zuzendutako denda da?

Ez. Osasuna eta elikadura zaindu nahi duen ororentzat ditugu produktuak gurean.

Zer produktu, zehazki?



Abena hautsa, abenazko tortitak, kakahueteen krema, gluten eta laktosarik gabeko jogurtak, gantzik gabeko hamburgesak, salmoia... Pisia galdu nahi dutentzat, berriz, grasa erretzeko mota askotako produktuak ditugu; kafeinadunak, kafeinarik gabeak, t-caritina likidoa... Bestalde, artikulazio arazoentzako, desgasteentzako eta abarren-

tzako produktuak ditugu: kolagena, Omega 3...

Zein da egiten duzun lanaren alderik politena?

Jendearekin izaten ari naizen tratua azpimarratuko nuke. Horrez gain, oso ederra da guk eskaini diogun zerbitzu pertsonalizatua jaso duen jendeak hobekuntzak sentitzen dituela ikustea.

FullGas Sport Azpeitia

Loiolako Inazio Hiribidea, 17

20730 Azpeitia

Telf.: 688 87 00 17/647 97 59 09

fullgasazpeitia@gmail.com


Ordutegia: 10:30-13:30/16:30-20:00



FullGas
Sport Nutrition

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Gaztelaniaz, ETB2rako da eta

Martxoaren 29an egin zuten apustuaren negoziazioa Mikel Larrañagak eta Alex Txikonek Mendizabal erretegian. ETB2ko saio baterako, adierazpenak gaztelaniaz eginarazi zizkieten bie.  Uztarria

Bi ordu baino gehiago euskara hutsean negoziatzen. Mendizabal erretegiko mahai haren bueltan eseri ziren lagunetako inor ez zen erdal hiztuna, eta euskaraz aritu ziren Mikel Larrañagak eta Alex Txikonek datorren uztailaren 1ean egingo duten apustuaren nondik norakoak hitzartzen. Adostu zuten apustua zezen-plazan egitea, baita kirolari bakoitzak zer lan egingo dituen ere.

Horra arte, dena normal. Negoziazioa, behar bada, luze antzekoa, baina han ez zegoen inor besteari ezer oparitzeko. Bi aldeek akordioa itxi zuten halako batean, eta kazetariak lanean hasi ziren. Han ziren, besteak beste, Uztarriako, *Urola Kostako Hitzako*, *El Diario Vasco*ko eta EITBko kazetariak.

21:00ak baino lehentxeago zen, eta ordu horre-

tan ETB2an ematen duten saioko kazetariak hala esan zien, edukazioz eta euskaraz, bi kirolariei: "Mesedez, gaztelaniaz egin adierazpenak ETB2rako da-eta". Eta? Ba horixe, beste behin, bi euskal hiztun gaztelaniaz hizketan ETB2n.

Uemak 2014an eskatu zion EITBri talde horretako erdal hedabideek euskararen arnasmune diren eta mankomunitateko kide diren herrien errealitate soziolinguistikoa errespetatzeko. Halaber, hedabide publikoari galdegin zion hango kazetariei eskatzeko euskaldunei ez eskatzea gaztelaniaz hitz egitea. Legea betetzeko eskatu zion Uemak EITBri; hots, EAEko erakunde ofizial batek ez behartzea herritarra gaztelaniaz hitz egitera. Antza denez, hiru urtera, batzuek lehenago lepotik burua.✳



Alex Txikon eta Mikel Larrañaga apustuaren tratua itxi zuten unean.  Julene Frantzesena



Garbiñe Bereziartua.

ESANA DAGO

“Jasotako ekarpen asko ezezagunak ziren guretzat”

“Jasotzen ditugun hitzak azpeitiarrez esanak diren edo ez erabaki behar izaten dugu”

GARBIÑE BEREZIARTUA
Natuleko kidea

“Profesionalizazio puntu batean sartzen zara Urrezko LEBen”

“Inoiz ez gara lainezatuta ibili, gure txandalarekin jarraitu dugu lanean”

JOSE LUIS ZUBIZARRETA
ISBko zuzendaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

IKA Instalakuntza Elektrikoak

argi lanak s.l.

Urteko: 618 90 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargi@iakanak.com www.ikainstelmak.com
20730 AZPEITIA


Metrobi

Esan nizuen. Gure herriko haizearen norabidea aldatu egin da. Izan ginenak izatera iristea kostatu egingo bada ere, gazteei esker, herria, poliki-poliki, lur planetan dagokion lekua eta tokia berreskuratzen ari da. Urte tris-teak eta grisak amaitu dira, berriro bizipoza gosalzten ari gara; gu geldituko gaituen ama guztien bonbarik ez da ez sortu eta ez sortuko. Gelditzekotan ere epe laburrerako izango da.

Ez ohikoa, berez izugarria dena, ohiko eta arunt bihurtzen hasiak gara. Azkena, edo azkenetakoa, buzoa jantzi eta izerdia eta talentua uztartuz, zilarra landuz urrea irabazi dute-

nak. Erraldoiak eta beltzak nagusi diren erreinuan, gureek –Iker, Ibon, Gaizka, *Rubio*, Xabi, Aitor, Maier, *Pino*, *Xubi*– eta beste enparauek, denak gureak edo gutartuak, beste denak txiki-txiki egin eta txiki utzi dituzte. Betharrametan txeritxoa askatu zutenak, zuek erraz ulertzeko, NBAtik bi urratsetara daude. Eta guzti hori bi metroko herritarrik ez duen herrian (bi metrotik gorakoren bat baldin bada, barka diezadala). Jaio garen lekuan sortze hutsagatik ez gara beste inor baino gehiago, baina egun urria eta garestia den berezko zerbait badugu. Oraindik, zehatz me-

hatz, apartak egiten gaituen beste zera hori zer den zientifikoki azaltzerik ez dago, baina zerbait izan badela jakintsuenek ere ez dute ukatzen. Gazte labekada berri honek, herria berpizteaz gain, harrokeriarik gabe harro egoteko moduko egun asko eman behar dizkigu. Ez izan zalantzarik. Hori bai, tarteka, bi metroko neska-mutilak egiteko beharrezkoa den hazia ere aurkitu beharko dugu. Tamaina, hemen, biziki garrantzitsua baita. Eta ez bedi inor gureek kantxan irabazi dutena bulegoetan ezerezean uztera ausartu. Hasi Basilika Arena Center prestatzen. Zorionak Iraurgi.★



txetxu urbieta

IKUSTEKOA



▲ GARAGARDOAREN MUSEOA?

Garagardoaren museoa izan zitekeen, baina Sanagustin kulturgunea da. Duela egun batzuetatik, kulturguneko tabernaren barraren gainean lau garagardo upel ikus daitezke. Milana litro garagardo dituzte horietako bik, eta 500na litro gainerako biek. Oholtza atzeko erretaulari baino gehiago erreparatzen die jendeak upelei. 🍷👉 **Julene Frantzesena**★

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



Ikurrina

ABERRI EGUNA. Ikurrina balkoian! Aberria zer den dudan jartzen dugun honetan, bakoitzak bere esanahia ematen diogun honetan, Aberri Eguna erlijio jaitik kendu beharko genukeela esaten ari diren honetan, aberri edo zernolakoari jartzen dizkiogun mapak tamainaz hazten edo murrizten diren honetan, autonomia-federalismo-konfederazio-estatu independente izen zopa honetan, jai bera ospatzeko ez dakit zenbat deialdi ditugun honetan, nik ez dakit jada zer ospatu ere. Zuk bai?



maite garmendia



Bi urte barru Korrika

BATZUK. Igaro berri da Korrika. Aurtengoan utzi duen zantzua zirrargarria izan da. Ehunka lagun goizeko ordu ez hain txikietan kalean, euskarari bultzada emateko prest. Orain, hauspoak utzi digun airea baliatuz, egin diezaiogun bultza, eta saia gaitezen norbanakoak geure ahalegintxo egiten, geure ekarpen txikiak egiten. Euskara ahora; euskara begira; euskara belarrira; euskara mundura.



Txip, txip, hurra!

TXIPDUN EDUKIONTZIAK. Bazen garaia. Udazkenara arte zain egon behar oraindik. Hainbeste buruko min eman duen gaia, hainbeste liskar sortu duena eta oraindik ere sortzen ari dena. Bosgarren edukiontzia zenbat urte daramatza Azpeitian? Zenbat aurreratu dugu birziklapenean? Gutxi. Kanpaina franko egin arren, jende mordoak

oraindik ere ez du bere hondakinen erantzunkizunik. Toma! Zertarako sailkatu dena zorro berean sar badezaket? Ez al dut bada ordaintzen? Orain, txipa erabiltzen ikasi behar! Ala, ez al dute bada errausketarako zentroa ipini behar? Eta, hala ere, lan hori hartu behar dugu? Zero zabor, noizko?*

INKESTA

urtean zehar, oporrak noiz dituzu nahiena?

Ainitze Agirrezabala

ALEX AMENABAR

63 urte



“Etenik gabeko oporrak ditut, duela bi urte aurrejubilatuta nintzen eta. Langilea nintzela, urte guztian ostiral arratsaldeak jai nituen, eta abuztuko oporrekin batera, onenak ziren”.

ELI EGIGUREN

33 urte



“Baserrian egiten dut lan, eta haragitarako behiak eta

txahalak kontatuta, ehundik gora buru ditugu. Animaliekin dihardugunok egun libre gutxi izaten dugu, baina saiatzen gara txandaka opor egunak hartzen”.

PEDRO SOROZABAL

68 urte



“Urte guztian ditut oporrak, eta, kobratuta, gainera. Eraikuntzako

langilea izan naiz, eta oporrak ahal zenean egiten genituen: obra bat bukatu eta irabazitako xahutu arte ez ginen berriro hasten lanean. Kar, kar, kar”.

ENERITZ MANCISIDOR

24 urte



“Joeraren kontra, nahiena iraila dut. Mundu guztia lanera itzultzen

da, eta bidaiatzea askoz ere merkeagoa da. Ez da turismo masiborik izaten. Nikaraguara joatea nahi dut aurten”.*

Paradisu zinema

Adituek diotenez, haur baten bizitzaren lehenengo sei urteak erabakigarriak dira bere nortasuna eraikitzeko. Atzera begiratuz gero, sasoi hartan hasi nintzen nire gaur egungo pasio batzuk garatzen. Aitarengandik musikarako eta irakurtzeko zaletasuna jaso nituen, eta aitonari esker zinema maitatzen ikasi nuen.

Gure aitonak Cervantes zinema aretoan egiten zuen lan. Goizetan garbitzaile aritzen zen, eta arratsalde-gauean aretozain lanak egiten zituen. Hori horrela izanik, txiki-txikitat hasi nintzen pelikulak ikustera joaten, eta zinemaren magia barruraino sartu zitzaidan.

Eskolako oporraldietan, aitonari zinema aretoa garbitzen laguntzera joaten nintzen, eta Giuseppe Tornatoreren pelikularen protagonistari bezala, ate magiko bat ireki zitzaidan. Ez dakit egiten nituen garbitzaile lan horiek probetxuzkoak suertatzen zitzaizkion aitonari, baina nik ikaragarri maitatzen



chusemi vicente

nuen zinemaren barruan gora eta behera ibiltzea. Proiektzio gelak, ametsen fabrika horren bihotzak, izugarri tentatzen ninduen, eta sartzen nintzen baikoitzean, zeharo liluratuta uzten ninduen bere atmosfera ilunak eta miresgarriak. Hori guztia dela eta, zinea tenplu sakratu bihurtu zen niretzat, errespetatu eta maitatu beharreko kontua.

Urte batzuk itxita egon ostean, Azpeitian badugu zinezaleentzako txokoa, programazio anitza eta ugaria eskaintzen duen areto bat. Hala ere, Soreasu antzokiko emanaldiak beti ez dira atseginak suertatzen, eta paradisu infernu bilakatu zait nahi baino gehiagotan. Gozokien poltsen zaratak etengabeko zurrumurru gogaikarria sortzen du, eta batzuek etxeko egongelan egongo bailiran jokatzeko dute, beharrezko isiltasuna apurtuz. Bertako langileei kexa adierazi arren, gauza gutxi egin dezakete, jendea heztea ez baita beren lana. Besteenganako errespetua etxean landu beharreko kontua da.*

galdetzen hasita, autobusak igaroko al dira sanjuandegi eta Loiolako inazio hiribidea Lotuko dituen zubitik? Uztarria

Zutik bizi den herri bat

Atzo izan balitz bezala gogoratzen dut; jendez gainezka, festa giroa, urduritasuna eta emozioa. Emakume bat gerturatu zitzaidan, lekukoa eskuetan, eta hurrena gogoan dudana da zeinen harro sentitzen nintzen; bihotza borborka nuen, lekukoa nire eskuetan zegoen; bi urte lehenago Azpeitira bizitzera etorri eta euskara ikasten ari zen *boricua* baten eskuetan. Minutu batzuk izan ziren, behar bada segundo batzuk besterik ez, baina sekula ez dut ahaztuko. Instant bat nahikoa izan zen Korrikaren historiaren parte izateko; hori da hori ohorea helburu handi baten alde korrika egitea, hainbeste eman didan hizkuntza baten alde korrika egitea.

Momentu batean kanpora atera nahi dut eta Korrika atzerritar baten begiradatik aztertu; eta “kanpora atera” diot, pixka bat hemengo sentitzen naiz eta dagoeneko. Zaila da ez harritzea, zaila da amorru pixka bat ere ez sentitzea ikusten duzunean herri batek borrokatu beharra daukala, aldarrikatu beha-



linette montalvo

rra daukala bere bihotzeko hizkuntza babesteko. Ez da zentzuzkoa! Triste da ikustea politika aitzakia moduan erabiltzen dela kultura baten oinarrikoena kolpatzeko, ikustea interes politikoak erabiltzen direla berezkoa den hizkuntza ahultzeko eta bigarren maila batean uzteko. Jainkoari esker, zutik bizi den herri bat da hau; zerutik limoiak erortzen zaizkionean limonada egiteko edo Korrika bat antolatzeko gai den herri bat.

Hori guztia esanda, uste dut Korrikak balio duela zenbait euskaldun beren hizkuntza egunerokoan erabiltzeak duen garrantziaz ohartarazteko. Oraindik harritu egiten naiz euskara ia entzun ere egiten ez den herriak badirela ikustean, eta ez bertako bizilagunek hitz egiten ez dakitelako, baizik eta beren hizkuntza ez den beste batean bizitzen ohitu direlako. Hori zortea gure Azpeitian horrelakorik ez gertatzea!

Euskal Herrian euskaraz!*

MARTIN

MAIATZA hitzaldi zikloa

BASERRIALURRABIZITZA

Sanagustin
kulturgunea

PATXADAZ



Zazpigarren kontinentea

Hurritz, oraintxe ikusi dut telebistan ozanoetako ur lasterrek plastikoa hartu eta itxaso barrura garraiatzen dutela, urrun haie-tan pilatuz mila koloretako uharte nabarrak osatu arte. Gu bezalako jendeak uretara bo-tatako hortzetako eskuilek, koka kola botilek, jogurt potoelek... osatzen omen dute zazpiga-rren kontinentearen oinarria.

Izututa geratu naiz gure etxeko egongelari erreparatu diodanean. Geu ere plastikozko uharte baten gainean gabiltza barren! Auska-lo nondik eta nola iritsi diren, Coriolisen zein efektuk bultzatuta zurezko zoruan barreiatuta

dauden traste hauek guztiak. Badira hor DVD baten azala, nire umetako panpinak, zure anaiari oparitutako hamaika animalia-er-replikak, amaren musika diskoak... den dena nahasian, anabasa betean.

Pentsatzen hasita, egunetako aktualitatea irudikatzeke ez zait metafora hobea-otutzen. Badirudi egongelara aspaldiko eta gaurko katxibatxeak ekarri dituen antzerako indar zentripeto batek lotzen dituela albiste-ak tinta beltzezko itxasoan. Begira, hor dira esaterako atzora arte Espainiako alkate eta zinegotzi izandako hainbat eta hainbat diru-

lapurretetan nahastuta, hor dago Jose Utrera Molinari (besteak beste, Puig Antich garrote-an hiltzera bidali zuen ministro frankistari) egindako hileta, hor da Jose Sanjurjo nafar militar kolpista gaurko agintari artean omen-dua... Uharte bihurtutako zabor pilaren gai-nean itsas-txoriak korroka.

Hurritz, uste dut Interneten barku puzga-ria erosi behar dudala biontzat. Etxeko sala-ko zikina garbituko dugu, baina kanpoko itsa-soan hondartu gabe aurrera egitea lortu behar dugu begiak erne eta arraun gogorre-an...*



|||||||||||||xabi borda||||

Erotikan Plax!

Azpeitiko Udal Musika Ban-dako zuzendari Unai Frantse-se-nari dagokio hil honetan galderei erantzutea.

Zer esan nahi du zuretzat Az-peitiko musika banda zu-zentzeak?

Ohorea, eta, aldi berean, ardura handia, batzuetan lan karga han-dia ere badelako. Baina, oro har, gustura nago.

Azpeitiko bandan adinako gidaritza du Unai ohe kon-tuetan?

Bai, tokatzen denean bai. Egoera-ren arabera, gidaritza ere aldatzen da.

Musika bandaren zein abes-tik altxatzen du azpeitiarra?

Dudarik gabe, inauteri goizeko *Dianak*. Altxatu, altxatu... ez dakit hitz egokiena den, ordu horretan gradu etilikoak ere eragin handia du eta, kar, kar, kar.

Gau erromantiko baterako zer musika instrumentu au-keratuko zenuke?

Hammond B3 organoa, Leslie an-plifikagailuarekin.

Eta gau ero baterako?

|||UNAI FRANTSESENA|||

Adina. 42 urte.
Jaioterria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Musikaria.



Gitarra elektrikoa ondo distortsio-natuta.

Zer nahiago: tono maiorrean edo menorrean?

Beti maiorrean.

Duo eder bat egiteko zerk lagun dezake?

Ondoan duzuna ezagutzeak, ar-reta elkarrengan jartzeak eta elkar ulertzeak.

Ligatzeko zein kantu aukera-tuko zenuke?

Pereten *Que suerte*.

Sekretu txikiren bat esango?

Sekretuak ez dira kontatzen.

Pertsona batengandik zerk erakartzen zaitu?

Alaitasunak eta irribarre politak.

Altxor egiten zaituen ezau-garri bat?

Lagunen laguna naizela, onerako eta txarrerako.

Zerk lotsatzen zaitu?

Laguntza eskatzeak.

Zein da zuretzat pelikula ins-piragarri bat?

Norbere bikotekidearekin egiten dena.

Txoko bat?

Xoxote punta.*

|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||



|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduek, hilabetea: maiatzaren 10ean (16:00-19:00) eta 27an (10:00-13:00).|||



▲ ODOLA EMATEN.

Odola emateko ezinbestekoa da 18 eta 65 urte artean izatea, 50 kilo baino gehiago pisatzea eta bizitza osasuntsua izatea. Emakumeek urtean hirutan eman ahal dute; gizonek, berriz, lautan. Hileko azken asteazkenetan dute azpeitiarrek odola emateko hitzordua, eta maitatzean bitan egingo dituzte ateraldiak: 16an eta 31n. Azpeitiko Odol Emaileen Elkarteko kideek datozen hilabeteetan odola ematera animatu dituzte herritarrak, eta gazteak, bereziki.



▲ TXANDA HARTU.

Azpeitiko Odol Emaileen Elkarteko kide Zelestino Iturzaeta txanda zenbakiak banatzen hasten da 16:30 aldera.

Beharrari erantzuten

Odol emaileek hilaren azken asteazkenean izaten dute hitzordua, anbulatorioan. Odol-ateratzeen prozesua irudietan jaso du Uztarriak.   Ainitze Agirrezabala



▲ MATERIALA DESKARGATZEN.

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Alberto Galdosek –argazkian, furgonetaren barruan– odol ateraldiak egiteko beharrezkoa den material guztia ekartzen du, eta Azpeitiko Odol Emaileen Elkarteko kide Iturzaetak, Gregorio Aldaik eta Ramon Etxeberriak furgoneta deskargatzen laguntzen diote.

► PRESTATZEN.

Anbulatorioko lehen solairuan hamaka eta material guztia prest izaten dute 17:00etarako, lanari ekiteko. Argazkiko erizainak goizez Gipuzkoako hainbat lantegitara, lanbide heziketako zentrotara eta Donostiako campusera joaten dira ateraldiak egitera. Arratsaldez, berriz, egunero bi herritan aritzen dira. Donostian egunero eman daiteke odola.





▲▼▲ MEDIKU AZTERKETA.

Behin txanda hartuta, odola eman aurretik mediku azterketa egiteko zain egoten dira. Odol emailea osasunez baldintza onetan dagoela ziurtatzeko, medikuak elkarrizketa bana egiten, tentsioa hartzen eta odolaren lagin bat ateratzeko behatza ziztutzen die. Emaileak nahikoa burdin duela bermatzeaz gain, haren odolak gaixotasun kutsakorrik ez duela ziurtatzen dute.

▼ MOKADUA PRESTATZEN.

Odola eman ondoren indarrak hartzeko ogitartekoak prestatzeaz arduratzen dira Etxeberria eta Aldai.



▲ ZAURIA IXTEN.

Behin odola emandakoan zauria ondo itxi dela eta emailea baldintza onean dagoela ziurtatzen du erizainak.



▲ IDENTIFIKAZIOA.

Odol transfusioak egiterakoan okerrik egon ez dadin garrantzitsua da oso odol emalea eta bakoitzaren poltsa egoki izendatzea.

▲ HOZKAILURA.


Hozteko kaxa berezietan gordetzen dituzte odol poltsak, 22 graduko tenperaturan. Ateraldiak bukatzean, Galdakaoko zentzora eramaten dituzte poltsa guztiak.

▼ INDARRAK HARTZEN.

450 kilogramo odol ateratzen zaio emale bakoitzari, eta, noski, ondoren garrantzitsua da indarrak hartzea. Txorizo eta antxoia-ogitartekoak prest izaten dituzte, errekuperatzeko.



Ausartzeko unea

Krisi garaian, hainbat dira autoenpleguaren alde egin eta enpresak sortu dituzten herritarrak. Erakundeen laguntza izan dute.  Julene Frantzesena/Mailo Oiarzabal

Datuek erakusten dute Azpeitia eta azpeitiarrak ari direla ekonomia krisiari aurre egiten, pixkanaka-pixkanaka. Herria gogor astindu zuen krisiak, eta bertako hainbat lantegi eta enpresak atea itxi behar izan zituzten haren eraginez. Alta, krisi garaian enpresa berriak sortu dituzte herrian, eta asko dira autoenpleguaren aldeko hautua egin dutenak ere. Horiek eragin zuzena izan dute langabezia tasaren jaitsieran.

Azken urteetako langabezia datuei erreparaturaz gero, 2013ko urria izan zen Azpeitian datu tristenak utzi zituen hilabetea. Azpeitia izan zen Urola Erdian langabezia tasa altuena zuen herria hilabete hartan; hain zuzen ere, %17,20 izan zen azpeitiar langabeen tasa. Urola Erdiko batez besteko tasa, berriz, %16,23 izan zen, eta %14,70 Gipuzkoakoa. Ordurako, Azpeitiko Udala hainbat neurri

hartzen hasita zegoen, langabeziari aurre egiteko. Hala nola, 2013an bertan jarri zuen martxan erakundeak Enpleguaren Sustapen Plana, eta Iraurgi Berritzen garapen agentzia ere norabide berean hasi zen lanean. Urri hartatik egin du euririk, baina, pixkanaka, Azpeitiko langabezia datuak hobetzen joan dira.

lazko martxoan, adibidez, %11,6 zen langabezia tasa Azpeitian, eta zenbateko hori hil hartan Urola Erdiko batez besteko langabezia tasaren -%12,4-, Gipuzkoakoaren -%13,8- eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoa elkartutakoaren -%16,3- azpitik zegoen. lazko martxotik hona, gorabehera txiki batzuekin tartean, baina, oro har, beheranzko joera izan du langabeen kopuruak Azpeitian. Joan den martxoko datuei erreparatu besterik ez dago; izan ere, 2017ko martxoan %10,3 izan zen langabezia tasa herrian.

Udalak hartutako neurriek, eta herritarren jarrera ekintzaileak eragin zuzena izan du datu horietan. Oraindik asko dago egiteko, eta udalak behin eta berriz esan du lanaren kalitateak "kezkatzen" duela. Halere, asko dira azken urteotan negozio berriak sortzera animatu diren herritarrak, eta denbora asko ez dela autoenpleguaren bidea hartu duten edo enpresa berriak sortu dituzten herritarrekin hitz egin du Uztarriak.

LUF E ALTZARIAK

III Kokapena. Azpeitia. **III Kideak.** Enrique Arrillaga (Eibar, 1967).

“Argi daukagu egiten duguna”

“Luferen ideia beste asko sortzen diren bezala etorri zen, aurretik beste asko probatu

III DATUAK

Asko dira azken urteotan Iraurgi Berritzeneko Ekintzailetasun zerbitzura jo duten herritarrak. laz, esaterako, 83 kontsulta jaso zituzten Urola Erdiko garapen agentzia horretan.

Azpeitiko Udalak, gainera, Sustapen Planari esker, hainbat proiektu lagundu ditu diruz azken urteotan. Hain zuzen ere, 2013az

geroztik, 272 proiektu izan dira udalaren diru laguntzak jaso dituztenak. laz, 350.000 euro bideratu zituen udalak Sustapen Planera.

EKINTZAILE ZERBITZUA.

83 kontsulta. Kontsulta kopuru hori egin zuten norbanakoek zein taldeek 2016an.

14 proiektu. Azpeitiko herritarrek

eginiko 14 proiektu lagundu zituzten, eta denak dira martxan.

24 lanpostu. Martxan jarritako 14 proiektu horiek 24 lanpostu sortu dituzte.

SUSTAPEN PLANA.

89 eskaera. Eskaera kopuru hori jaso zuten 2016an.

86 proiektu. Proiektu kopuru

horiek jaso zuten diru laguntza: 22 merkaritza eta lehen sektoreko proiektuak; 14 industria proiektu estrategikoak eta berritzaileak; ekintzailetasuna sustatuta enplegua sortzeko 22 proiektu; eta bi proiektu sozial.

22 lanpostu. Diru-laguntza horiek esker, 22 lanpostu berri sortuko dira.*



Enrique Arrillaga Lufe altzari enpresaren jabea. ||| Julene Frantzesena

eta guztietan huts egin ondoren, alegia. Baliteke, hain justu, aldea izatea hor genituela aurreko porroten irakasgaiak. Lehen, insignis pinuari balio erantsia ematen zioten produktuak bilatzen genituen beti. Altzari pertsonalizatuak egiten genituen, akabera askotan, baina haien konplexutasunagatik-edo, ez genuen lortu bezeroengana iristea. Ate trinkoak ere fabrikatu genituen, modelo eta akabera askotan baita, baina horiek ere ez zuten esperotako harrekaririk izan; prezioarengatik, agian, edo banaketa-bidearekin ez genuelako asmatu.

Aurreko porroten ondorioz dena galduta nuela, lanerako nituen aukerak aztertu eta ulertu nuen Lufe garatzea zela niretzat une

hartan egokiena. Hazia jarrita zegoen aurreko enpresa proiektutik; hura garatzen nuen, edo lan guztiz desberdin bati ekiten nion. Eta beste nonbait beste edozein lan aurkitzearen aukera beti hor dagoenez, proiektua garatzeko unea huraxe zela ikusi nuen. Horrela hasi ginen lanean; eta hasi 'ginela' diot, Marta Quiroga emaztea beti izan nuelako bidelagun.

Proiektu honek aurrekoekiko duen ezberdintasun nagusia da oso argi dugula egiten ari garena, eta ez garela gure baloreetatik aldentzen. Tokikoa eta ekologikoa den fabrikazio eredua izan daiteke sekretua, fabrika prezioak alde batera utzi gabe. Ez dakit zeintzuk diren egunetik egunera

lan gehiago izatearen gakoak, baina bada-kigu gure baloreei eutsiko diegula, egiten dugun lanarekin gozatzen jarraitzeko. Badakigu zer den 'hilda' egotea eta, dudarik gabe, askoz hobea da oraingo egoera hau. Komunikabideetan izan dugun oihartzuna tarteko, etapa berri batean gaude, eta erronka handiak ditugu aurrean. Ez dakit zer etorriko den etorkizunean eta, egia esan, horrek ez nau kezkatzen. Aro hau intentsitate osoz bizitzea nahi dugu, eta horretan gaude”.

LIROA ZENTROA

||| **Kokapena.** Azkoitia. ||| **Kideak.** Lierni Artola (Azpeitia, 1981) eta Naroa Aranbarri (Azkoitia, 1980)

“Kosta zitzaigun erabakitzea”

“Liroa sortu genuen jada bezeroei zerbitzu on bat emateko prest geundela ikusten genuelako. Formakuntza luzea dugu biok, eta ikasten segitzen dugu. Fisioterapiari diplomatuak gara, eta osteopatian ere trebatu gara sei urtez. Gainera, pilates edo haurdunaldi aurreko eta ondorengo saioak ere eman ditzakegu. Nahi genuena da alor desberdinak jorratzea, eskaintza zabaltzea, behar-beharrezkoa baita ahalik eta zerbitzu gehien ematea.

Liroa zabaldu aurretik batera egiten genuen lana, eta lan hark balio izan zigun esperientzia hartzeko. Aldaketa behar genuen, eta erabaki genuen bion artean zabaltzea negozioa. Animatu egin ginen, aurrera egin dugu, eta hemen gaude.

Martxoan zabaldu genuen Liroa Azkoitian, eta, egia esan, bi hilabete hauetan izan dugun martxarekin gustura gaude, hilabete

Azpeiti
AUTOESKOLA

www.azpeitiautoeskola.com
Telf.: 943063143 / 655727230

Azpeitia Txartelarekin
%5eko beherapena

Belaunaldi aldaketa dela eta,
Oñati Gain soziedadeko kide berria izateko aukera paregabea.

- Estalitako hiru jangeletan eta kanpoko zelaian dituen mahaletan 120 lagunentzako tokia. Frontoia ere badu.
- Bazkidetzaren sarreraren prezio erakargarria eta ordaintzeko erraztasunekin. Prezio bereziak taldeka datozenentzat.

Interesatuak deitu 678581441 edo 678780828 telefonora.

hauen balorazioa oso positiboa da. Jendea etortzen da, eta lehen lan egiten genuen zentroko bezero batzuk ere etorri zaizkigu. Beraz, alde horretatik, oso gustura gaude; merezi izan du.

Hori bai, asko kostatu zitzaigun erabakia hartzea. Lana genuen, eta lehenik hura utzi behar genuen. Hori ja, pauso potoloa zen, eta enpresa muntatzeko genuen...

Badago merkatua hemen inguruan. Egia esan, Azkoitian fisioterapia zentro gutxiago daude Azpeitian baino, eta horregatik erabaki genuen Azkoitian zabaltzea. Fisioterapia zentroak badadue, baina, hala ere, eskaria dago. Guretzat ere merkatua badagoela dirudi gaur-gaurkoz. Enpresa martxan jartzekoan Iraurgi Berritzenean laguntza izan dugu. Bideragarritasun Plana egiten-eta lagundu digute, eta enpresa sortzen ere ikasi dugu. Izan ere, guk orain arte ez genekien autonomo izatea zer zen ia, eta dena azaldu digute bertan. Oraindik harremanetan jarraitzen dugu, badugu-eta zer eginik. Babesa da halako erakunde bat ondoan izatea, eman diguten laguntza beharrezkoa izan zaigu”.

ZUEKIN

||| **Kokapena.** Azpeitia. ||| **Kideak.** Mikel Segurola (Azpeitia, 1991), Gorka Ribera (Azkoitia, 1993) eta Luken Galarraga (Azpeitia, 1992).

“Enpresa ideia argi genuen”

“Joan den apirilaren hasieran zabaldu genuen Zuekin. Ikusten genuen entrenamendu



Zuekinako kideak Enparan kalean zabaldu duten gimnasioan. ||| **Julene Frantzesena**



Narrea Aranbarri eta Lierni Artola fisioterapeutak Liroa zentroan. ||| **Julene Frantzesena**

pertsonalak, eskaintza pertsonala, falta zela herrian, eta horregatik ireki dugu. Arlo desberdinak ukitu nahi izan ditugu. Eskaintza zehatza egin baino, jendeak nahi duen horretara moldatzen gara. Bezero bakoitzaren beharretara edo helburuetara egokitzen den saioak egiten ditugu. Izatez, entrenamendu pertsonalak eskaintzen ditugu, baina bikoteak edo taldeak ere baditugu. Bezeroei dagokienez, jendea etorri da ebakuntza ondorengo errehabilitazio ariketak egitera, mantentze jarduerak egitera, triatlói baterako prestatzera edo suhiltzaile probetarako entrenatzera. Beraz, denerako gaude zabalik.

Hala eta guztiz, jarduera fisikoa geroz eta jende gehiagok egiten badu ere, pertsonalizatutako zerbitzuen kontua ez dago oso sartuta inguru honetan. Jendeak ez du zerbitzu hau gertuan ikusi orain arte, eta ez da telebistan ikusten diren entrenatzaile pertsonalen irudi hori gurea. Joan izan gara ba eskolaz kanpoko partikularretara bakarrik? Ba, horixe da hau ere; bezeroaren erritmora egokitutako saioak eskaintzen ditugu.

Apustua egin dugu, eta ikusi behar dugu jendeak nola erantzuten duen. Ikusten genuen ondo atera zitekeela, baina ez dakigu zer erantzun izango duen. Momentuz, jendeak eman du izena, eta gustura gaude. Herriar asko etorri dira zer eskaintzen dugun galdetzerara ere. Ez dakiguna da jendeak zer eskatuko duen gehiago, eta oraindik hasieran gaudenez, aztertzen ari gara.

Kirol ikasketak bukatu genituenean, kiroldegiko harrera zerbitzuaren lehiaketara aurkeztu ginen, eta irabazi egin genuen. Han hasi ginen lanean, eta proiektua osatzeko asmoarekin, buruari bueltaka hasi ginen. Kirol arloan herrian zer hutsune zeuden identifikatu genuen, eta hortik abiatu ginen. Kiroldegiarekin jarraitzen dugu eta han eskaini ezin dugun zerbitzu hori eskaintzen dugu Zuekin zentroan.

Enpresa ideia argi genuen, baina ez genekien nola jarri martxan enpresa, noraezean geunden. Horregatik, Iraurgi Berritzenera jo genuen, eta haien laguntza izan dugu prozesu osoan. Kiroldegirako sortu genuen enpresa, eta horrek probatzeko aukera eman digu

arriku handirik hartu gabe. Beraz, hastea ohi baino pixka bat errazagoa izan da guretzat”.

JON ESNAOLA

||| **Kokapena.** Azpeitia. ||| **Kideak.** Jon Esnaola (Azpeitia, 1970).

“Beti izan dut neure kabuz lan egiteko gogoa”

Duela 19 urte hasi nintzen arkitekto tekniko edo aparejadore lanetan. Lehenengo erakuntza enpresa txikietan aritu nintzen, eta, gero, multinazional batean, Madrilén. Herri-minez, Azpeitira itzuli nintzen, eta Bizkaiko ingeniaritza enpresa batean hasi nintzen lanean. Azken bost urteetan, berriz, Tabakalerako aparejadore lanetan aritu naiz, eta hura bukatzean eman nuen lanean neure kasa hasteko pausoa. Betidanik izan dut neure kabuz lan egiteko gogoa, baina pausoa ematerako, ondo prestatu nahi nuen. Zerbitzu ona eman nahi diot nigana datorrenari. Gure lana medikuena-eta bezalakoa da: lan zabala da, eta oso zaila da denetik jakitea. Bezero bakoitzak behar batzuk ditu, desberdinak, eta urte asko pasatu ditut denetik pixka bat ikasten eta probatzen, erabakia hartzeko unea iritsi den arte.

Orain, arkitekto tekniko bezala ari naiz lanean, baina ez dakit, zehazki, zer egin behar du dan etorkizunean. Denborak esango dit nondik joan behar du dan aurrera. Joan den hilean hasi nintzen martxan, autonomo gisa, baina, aurreko hilabeteetan, gauzak prestatzen aritu naiz, eta aurreratuta ditut zenbait gauza. Oso geldirik egon den sektoreak dira eraikuntzarena-eta, baina pixka bat mugitzen hasi da merkatua. Uste dut aurreraka doala, eta une egokia dela lanean hasteko.



Jon Esnaola aparejadorea obra batean. ||| **Julene Frantzesena**

Dena den, lanean bakarrik aritzeak badu zailtasun bat: bakardadea. Ez da soilik lan guztia zuk egitea, arazoei ere zeuk egin behar diezu aurre. Halere, hainbeste urtez aritu naiz jendearekin lanean... Nik buruan izan dut iritsiko zela bakarrik lanean hasteko unea, eta iritsi da. Badu onurarik ere; izan ere, bakarrik aritzen zarenean, zeurea da proiektua. Etxetik egiten dut lan, eta desabantaila ugari ditu horrek. Biharko egunean nahiko nuke lanerako toki fisikoa izatea, bai jendea hartzeko eta bai bizitza pribatua eta lana bereizteko. Adibi-

dez, ondo legoke herrian *coworking* gune bat izatea, negozio berriak martxan jartzen dituen jendeak bertan lan egin dezan eta horiek elkarren berri izan dezaten.

Iraurgi Berritzenen laguntza handia eman didate, eta oso eskertuta nago bertako kideei. Bakarrik zaudenean, gustura hartzen dira aholkuak-eta. Oraingoan, Jon Esnaola izenean hasi naiz lanean, eta webgunea sortu dut: www.jonesnaola.eus. Orain denerako irekita nago, eta ikusiko dugu bihar non eta nola gauden”.

“Il Partigiano” azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak gande. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutzaga, 12 behea

IRENE ALTUNA
LOKADENTA

Lalala-Bida, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ireneadenta.com

Euskal Herria, 31
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
Larrialdiac
943 15 16 40


ALBAITARI KLINIKA

Aiertza Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Aukeratik beharrera

Laguntza eske joaten direnen profila aldatu egin dela diote Iraurgi Berritzenen Ekintzailetasun zerbitzuan. Autoenplegua bihurtu zaie askori lan merkatuaren oztopoei aurre egiteko bide.  M. Oiarzabal

Azpeitiko eta Azkoitiko dozenaka lagunek jotzen dute urtero Iraurgi Berritzen Urola Erdiko garapen agentziaren Ekintzailetasun zerbitzura, enpresa edota negozio ideia bat buruan dutela, informazio eta laguntza eske. Alazne Larrañaga (Azkoitia, 1973) eta lone Eizagirre (Azkoitia, 1980) dira zerbitzuaren arduraduna eta

teknikarietako bat, hurrenez hurren.

“Asko telefonoz gerturaten dira, eta zer laguntza dauden-eta galdetzen dute. Hori izaten da normalean lehenengo galdera”, dio Larrañagak. Hitzordua jartzea izaten da hurrengo pausoa, pertsona bakoitzaren eta ideiarenean “erradiografia txiki bat” egiteko.



Alazne Larrañaga eta Lone Eizagirre.  Mailo Oiarzabal

“Lehendabiziko elkarrizketa horretan antzematen duzu jada ideia zer estadiotan dagoen: oso hasierako fasean, pixka bat landuta edo jada buelta asko emanda, buruan besterik ez bada ere”. Eta hasierako argazki horren arabera datoz ondorengo pausok ere. Pertsona bat negozio ideia batekin joaten zaienetik enpresa bihurtu arteko ibilbidean laguntzea izaten da Ekintzailetasun zerbitzuko lana.


“Alde handia egoten da etortzen zaizun pertsona horrekin nolako konplizitatea lortzen duzun; horren arabera, gehiago edo gutxiago lagatzen dizu laguntzen”, zehaztu du Larrañagak. “Erakusten duen lanerako gogoaren eta prestutasunaren arabera, geu ere gehiago inplikatzeko gara, agian. Azkenean, bakoitzak erabakitzen du bere ibilbidea, zenbateraino sartu gaitzkeen edo ez”, gaineratu du Eizagirrek. Biak bat datoz, halaber, dirutan edo inbertsionetan pentsatu aurretik, ga-

rrantzitsuena dela “denboran inbertitzea”, proiektua ondo egostea. “Aztertu beharreko asko egoten da. Ekintzaileak ikusi behar duena da, zenbat eta informazio gehiago jaso, orduan eta erabaki hobekak hartuko dituela”, dio Eizagirrek.

Proiektuan sinestea

2016an 83 kontsulta jaso zituzten. Horietatik 14 proiektu tutorizatu zituzten eta guztiak martxan dira gaur egun; eta denak azpeitiarrenak, “ohikoa ez” bada ere.

“Ekintzaileen profila asko aldatu da urteekin”, dio Iraurgi Berritzenen zerbitzuan hamabost urte daramatzan Larrañagak. “Lehen, etortzen zen ekintzailea gehiago zen merkatuan aukera bat ikusten zuena, eta gaur egun datozenak beharrak eraginda datoz gehiago”. Behar hori lan merkatuan tokia aurkitzeko zailtasunekin lotuta dator, hein handi batean. “Autoenplegu esaten zaion profileko proiektuak” izaten dira nagusi; eta “eredu klasikoko” negozioak, gehienak.

Ekintzailetasunak sakrifizioa eskatzen duela, eta “martxan jarri behar duzun enpresan sinestea gero eta inportanteagoa” dela nabarmendu du Larrañagak. “Etorrizuna izatea eta iraunkorra izatea nahi baduzu, uste ditut derri-gorrezkoa dela faktore hori”, berretsi du Eizagirrek. 

 **KIMU BAT**
GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85

Ospa!

Juan Luis Zabala idazle azkoitiarra bere hamaikagarren narrazio liburua, *Ospa*, eman du argitara Susan. Hamaikagarrarena eta oraindik, irakurri diogunaren arabera, idazteke dauka bere ipuinik onena. Nola koka izango ote? Nortasun bitxiko idazlea Juan Luis, euskal literaturan, peontza lan esker gan nekea pilatu eta pilatu aritu behar izan duen autoretzat daukat.

Gaurko munduan idaztea beste baliabiderik ez duen idazlearen tragedia txiki bezain garrantzizkoak bizi duen gizona dela esango nuke. Ez dirudi aitapontekotza literario jakinik duenik, ez du landu ikus-etzunezkoetan, paradoxikoki, ia ezinbesteko bilakatu den presentziarik. Euskararen orean nagusi, eta ia bakar, den itzal politikoa islatzen badu ere ez du organikotasunik aineratu, ez eta kukurruku edo irrintzi oportunistarik jo. Belaunaldiak abiatu zuen idazle, eta ofizioak idazletu du. Esan nahi dut bere literaturak egile sona handikoen lanen adinako ditzira edo gehiago badeula, baina bere izena eta tituluak ez ditugula kandeletan ikusten. Bitartean peontzan gogor, luze eta esker gabe aritu behar izan du. Euskal kultura eta literaturaren jarraipen periodistiko urtetakoa egin du, ahitu den arte.

Gezur gehiegi

Kultur kazetaritzari, kazetaritzari, uko egin dio, dimititu egin du, ulertzekoa. Eta literatura dimisionarioari, klaudikazioaren literaturari edo, nola esan, sinesgogortasunaren literaturari ekin dio. Aurreko nobelan, Euskal Herri errealerara etorri bezala, Radio Marcara igarozen kultur kritikaren mundutik. Oraingo ipuinetan ere desarteari, berea dela uste dut hitza, seta handiz ekiten dio. Miserien mundu honetan, miseria besterik ez ote? Iraupenerako zinismoa jan eta edanez elikatzeari ekin ote dion nago.

Gezur gehiegi ikusi eta irentsi duenaren adierazpide den literaturari ekin dio, autofik-



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Euskal kultura eta literaturaren jarraipen periodistiko urtetakoa egin du, ahitu den arte

zioaren harira autokritikan abiatuz edo autokritika herabea furian dagoen autofikzioz es-taliz. Ulertzen dizkiot motibuak, oka egiterai-noko kultur betekada. Azken finean, kritikarik ezaren, kortesiarik ere ezaren, biktima da, egungo idazle guztiak bezala. Salbatzen di-renak merkatuak salbatzen ditu eta inork ez dakigu noren mesedetan.

Atsekabe horretan artea suntsitzeko ekinaldi bat baino gehiago narratzen ditu, kultura garaikidearen metafora ezabatzeko saio-ak. Zer arraiogatik suntsitu behar da Chilli-da?

Gezur gehiegi aguantatu du Zabalak ingu-ruan, isiltasun gezurti handi bat, ia ito duena. Garai berriotan hartu duen bidean igeri nora egingo duen ez dakigu oraindik. Ez dakigun bezala bere ihesi hori kultur giro orotatik abiatu duen, bai ziurrenik, edo hain ondo eza-gutzen duen eta zorrozki jarraitu duen euskal kulturatik. *Ospa* edozein kasutan.✘



Aitatasuna kartzelan

Euskal preso da Joseba Segurola, eta aita izan berri da. Aitatasuna espetxean nola bizi duen kontatu du, eta dispertsioaz ere aritu da hizketan. 📌 Ainitze Agirrezabala

Hunkigarria izan zen oso" alaba ezagutu zuen unea Joseba Segurola *Xegurentzat* (Azpeitia, 1975). Lehen aldi hartan, ordea, ez zuen izan alaba usaintzerik eta laztantzerik. "Zühara jaio zen egun berean [urtarrilaren 7an] lagun baten bisita jaso nuen espetxean, eta hark ekarri zizkidan argazkiei esker ezagutu nuen". Aurrez aurreko lehen bisita heldu arteko egunak luze egin zitzaizkon euskal presoari. "23 egun itxaron behar izan nuen alaba jaioberria besoetan hartzeko. Oso momentu intentsoa eta berezia izan zen; une hartan sentitu nuen benetan aita nintzela". Aita izan berri, Frantziako Lan-nemezaren espetxean dago Segurola alabarengandik eta bikotekidearengandik 269 kilometrorera, haiek besarkatzeko hurrengo bisita noiz iritsiko egunak kontatzen, esperoan.

Muga guztien gainetik

Bikote harremana loratzeko kartzelan preso egotea ez da izan oztopo Segurolarentzat eta Maider Bastidarentzat (Donostia, 1979). Segurolak 2001ean ihes egin zuen, eta ordurako ezagutzen zuten elkar. Gero, 2005eko martxoaren 23an, Frantziako Poliziak atxilotu zuenean hasi ziren bata besteari gutunak idazten. Bastidaren esanetan, "Joseba zigortu zutenean, telefonoz deitzeko aukera eman zioten, eta dei haiei esker harremana sakontzen joan zen. Bisita baimenak, ordea, ukatu egiten zizkidan, eta haiek lortu



Joseba Segurola Zühara alaba besoetan duela, Maider Bastida bikotekidearekin. |||Uztarrria

ahal izateko, izatezko bikote egitea erabaki genuen”.

Bastidaren esanetan, kartzelan dagoen lagunarekin “bikote harremana hasteko eta sakontzeko baldintzak errazak ez” zirela jabetu arren, elkarrenganako “sentimendu berezia jaiotzen” ari zela dio, eta gerta zitekeenaren “beldur” pausorik eman gabe geratu baino “nahiago” izan zuten saiatu. “Azkenean, oinarrian dagoen galdera da: gure bizitzan eta harremanean aurrera egiteko espetxeak baldintza gaitzan utziko dugu? Edo, egoeraren zailtasunaz kontziente izanagatik aurrera egin eta gure ametsak betetzeko urratsak emango ditugu? Hortxe dago gakoa espetxealdiari aurre egiteko. Gainera, gaur egun, familia eredu ugari dago, eta gurea beste bat gehiago da”.

Harremana sakontzeak modu naturalean piztu zien guraso izatearen “ilusioa eta desira”, baina Bastidak dio espetxeak “asko zaildu eta luzatu” diela familia izatea. Era berean, gaineratu du bikotekidea kartzelan izatea “hutsune handia” bada, haurdunaldian hu-



tsune hori “are eta handiagoa” dela. “Oso une berezia da haurdunaldiarena, eta Joseba unero oso gertu sentitu arren, askotan haren hutsunea oso handia da: erditze aurreko klaseetan, mediku kontsultetan, erditzean, eta zer esanik ez, orain, egunerokoan. Halako egoeran ingurukoan laguntza garrantzitsua da oso, eta etxekoengandik eta lagunengandik oso babestua sentitu naiz”. Seguroularen esanetan, guraso izatea erabaki zutenean, “kontziente” zen horren guztiaren “hutsunea” senti zezakeela, baina “alaba mundura iristean” jakin du benetan hutsune horren pisua zenbaterainokoa den: “Izugarria”. Gainontzean, aita izatearen esperientziarekin “oso pozik” dago: “Ikasten eta gozaten, guraso izateak dituen ilusioekin, kezkekin eta urduritasunekin”.

Dispertsioa, etsai

Hilean bitan joaten dira ama-alabak Seguroularengana, eta mota desberdineko bisitak dituzte; iraupen luzekoa bata, eta motza bestea. Bisiten antolaketari dagokionez, Zühara koskortu arte, ama-alabak Lannemezanera eramateaz eta ekartzeaz Bastidaren eta Seguroularen familiak eta lagunak arduratzen dira, txandaka. Izan ere, haurra oraindik oso txikia da, eta Bastida txofer dela alabarekin bakarrik hiru ordu eta erdiko joan-etorria egitea gehiegizkoa litzateke.

Alabaren eta bikotekidearen bisitak “zorgarriak” dira Seguroularentzat. Alabaina, aitortu du aita denetik sakabanaketa “beste begi batzuekin” ikusten duela. “Urruntzearen ondorioz, haur batek aitarekin edo amarekin egon ahal izateko hainbeste kilometro egin beharra mendeku politikaren adibide argia

||| “23 egun itxaron behar izan nuen alaba jaioberria besoetan hartzeko. Oso momentu berezia izan zen”

||| “Haur batek aitarekin edo amarekin egon ahal izateko hainbeste kilometro egin beharra mendeku politikaren adibide argia da”

JOSEBA SEGUROLA ‘XEGU’
euskal preso

da”. Dispertsioaren “ondorio nagusienak presoek baino familiak eta lagunak sufritzen” dituztela adierazi du: “Zuzenean familia eta lagunak kolpatzen dituzte, zeharka gu kolpatzeko. Eguna joan eta eguna etorri giza esku bidez hitz egiten duten horiek dira politika anker hau martxan jarri zutenak eta gaur egun ere mantentzen dutenak, presoak suntsitzeko helburuarekin”. Bisita aurreko eta ondorengo orduetan, “kezkek biderkatu” egiten direla kontatu du. “Hurrengo egunean etxera telefonoz deitu eta ondo iritsi direla jakin arte urduritasunak jan egiten gaitu. Guztion ahaleginarekin, behar-beharrezkoa da egoera bihozgabe honekin lehenbailehen bukatzea”.

Bastidaren esanetan, “ezin da ukatu dispertsioak nekea eragiten” diela senideei eta lagunei. “Astea lanean pasatu ondoren, ehunka eta milaka kilometro egiten ditugu senidea bisitatzeko, eta ezin ditugu ahaztu haurrak, adineko pertsonak edota arazo fisikoren bat dutenak. Alabaina, senidearekin egoteko gogoak neke hori gainditu egiten du”.


Zentzu horretan, Paristik Lannemezanera “gerturatu” zutenean, “gurasoengatik asko poztu” zela esan du Segurolak, baina “amaren gaixotasuna eta banatzen gaituzten 269 kilometroak oztopo handiegia dira. Orain, aita izanda, Züharen hutsunea sentitzen dudak bakoitzean, nire amak senti dezakeen hutsunearekin asko gogoratzen naiz. Bi urte baino gehiago dira ama ikusten ez dudala”.

Izan ere, etxetik urrun preso dagoenarentzat indarra eta arnasa dira bisitak. “Espetxetik ihes egiteko modua dira. Familiakoen eta lagunak bisitek kalearekin harremanetan jarraitzeko aukera ematen digute. Zentzu horretan, kartzelako egunerokotasunari aurre egiteko behar-beharrezkoak ditugu”. Preso daramatzen hamabi urteetan, astea joan eta astea etorri, “hutsik egin gabe” astebururo bisitara joaten zaizkion guztiei egiten duten “ahalegina eta adierazten duten elkartasuna eskertu” nahi izan dizkie Segurolak.

Hirurok elkarrekin, etxean

Espetxea atzean utzi eta Joseba etxeratzen den eguna “ilusioz, gogoz eta pozez” irudikatzen dutela adierazi du Bastidak: “Egun horrekin amesten dugunik ezin ukatu. Maiz hitz egin dugu egun horretaz. Egoera berria izango da, eta denok egokitu beharko dugu. Izan ere, ziklo bat amaituko da, espetxearena, baina beste bat hasiko da; espetxea atzean utzi eta gu hiruron (elkar)bizitza eraikitzen hastearena”.*

Badatoz sanisidroak

Atxur Festiek hartuko du Aratzerreka auzoa maiatzeko bigarren asteburuan. Hilaren 12rako, 13rako eta 15erako dozenatik gora egitasmo prestatu dituzte festa batzordeko kideek.  Julene Frantzesena

Atxur festie edo sanisidroak ospatuko dituzte maiatzaren 12tik 15era Aratzerrekan. Ostira-lean atxurraren igoyerekin eta txupinazoarekin hasiko dituzte festak, eta izango da zer goza astelehena bitartean. Txupinazioaren ostean, poteoa eta mami jana egingo dituzte, eta afalostea soinu-jotzaileek girotuko dute. Goizaldean, baratzuri-zopa jana egingo dute.

Maiatzaren 13an, larunbatez, jarraituko dute festek. 09:30ean suziriak botako dituzte Atxur festie iragartzeko. Ondoren, ajeari aurre eginez, Izazpi eta Samiño artean mendi buelta egingo dute. Arratsaldean, zezen jolasak eta umeentzako atxur jolasak izango dira. Horiek bukatzean, triki-poteoa eta auzo afaria egingo dituzte, eta musikaz gozatzeko aukera

III DATUAK

III **Zer.** San Isidro festak.
III **Eguna.** Hilaren 12tik 15era (ostirala, zapatua eta astelehena). III **Tokia.** Aratzerreka.
III **Antolatzailea.** Aratzerrekako Festa Batzordea.

izango da gero. Ohiturari jarraituz, 01:00etan, hiru arrautza egosi nork lehenago jan lehiaketa egingo dute, eta irabazleak 30 euro eta dozena arrautza jasoko ditu.

San Isidro Egunarekin bukatuko dira festak. Astelehen goizean suziriak botako dituzte, eta meza izango da ondoren. Bazkaria ere egingo dute, eta 20:30ean amaituko dira festak atxurraren jaitsierarekin.*

III SAN ISIDRO JAIAK

3 egun. Hiru eguneko egitaraua prestatu dute aurtengo sanisidroetarako.

3 arrautza egosi nork azkarrago jan lehiaketa egingo dute igande goizaldeko 01:00etan.*



Iazko San Isidro festetako irudia.  Uztarria

III BESTERIK

1 Emakumeak maskulinizatutako lanetan, saioa Sozialki 'gizonen lanbide' diren horiez izango da solasaldia. Upategi bat kudeatzen duen emakume batek bere esperientzia azalduko du. Ondoren, ardo dastaketa egingo dute.

III **Eguna.** Hilak 12 (ostirala).

III **Ordua.** 19:00 III **Tokia.**

Emakumeen Txokoa.

2 Salatzen Dut Eguna

Presoen, iheslarien eta deportatuen eskubideen aldeko egun osoko egitaraua prestatu dute.

III **Eguna.** Hilak 20 (zapatua).

III **Antolatzailea.** Azpeitiko Sare.*

III **Azpeitiko** ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTIKASTROIK

Zor de Arretas, 17
Tel. 943.810664
AZPEITIA

Dol Goib, 26
Tel. 943.850445
AZKODITA

 **uba**
www.ubavizcaya.com

Ahukularitza
Finantza
Laborala
Lanbidea

Costurak, lanak

Finantza administrazioak
Gestio, Inmobiliaritza

Tel. 943.157.373 Fax: 943.157.375
Euzkoan, Kalea, 42 • 48900 Amurrio (Bizkaia)



**Ignacio
Zuloaga
Institutua
Eibar**



Aurrematrikula

Maiatzaren 2tik 12ra

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



IRAURGI
ikastetxea

Matrikulazio egunak:

Maiatzaren 2tik 12ra

Ate irekiak:

maiatzaren 4an
arratsaldeko 18:00etan

Ere Mai 18 - 20730 AZPEITA (Gipuzkoa)

Telf. 943 810210

iraurgi@iraurgi.com

www.iraurgi.eus



2 0 1 3



irratia-eraketa



**ILUSIOZ ETORKIZUNA
ERAIKITZEN!**

HITZ GEZIDUNAK

	Hutsuneak	Lesakako erreka	Pikondoa-ren fruitua	Denbora	Txorizoak
	Izena	Arkumeak	Molibdenoa	Purgatorio	
	Txioa bidali				
	Garaua, bihia				
Hitzaillea	Landare mota		... dakarrena ... daroa		
EHko mendikatea	Deitura		Bero bafada		
			Euskal sindikatua		Bokala
			Bokal birbila		501
Etsaia				Zezen zikiratu	
Itsas-lapurra				Bokal mehea	
			Hitzaldi politiko		
			Behorra arreske		
Egile atzizkia		Eguzkia		Bokala	Potasioa
Ikusteko organoa		Zizaren erdian		Oinarrizko edari	Kasik
			Zerbaiten mamia		
			Bokala		
Aizkora jokoan leihatzen dira					

Egilea: Luma

* Loiolako erretore nagusi azpeitiarra

SUDOKUA

		1	2	9		7	4	
			1		5	8		
	6							1
			9		2	6	8	
	8	9	5		7			
7							6	
		3	4		9			
	1	2		5	8	9		

IRAUR

MASAJE - OSTEOPATIA

Buztinzeriko Errebala 13, etxea
Mug. 076 299 120

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Oinetako erreflexologia
- Masaje terapeutikoak

- Osteopatia
- Estrukturala
- Digestiboa
- Garezurrekoa

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Maiatzak 24 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jerglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 BERADA

2 GENERORIK GUSTUKOENA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

K	A	I	R	A	L	O	K	Z	I	A	●
A	I	K	U	E	●	A	G	I	E	●	B
K	●	O	●	A	I	K	E	●	E	●	●
N	I	T	I	M	●	A	T	A	R	A	P
I	D	I	●	A	O	A	R	E	R	A	●
A	●	A	B	L	●	A	R	A	L	A	A
K	A	R	U	●	N	S	U	A	●	●	●
U	T	A	K	I	O	X	T	●	●	●	●
●	L	E	G	I	M	N	A	V	●	●	●
●	B	●	P	●	O	●	H	●	●	●	●

SUDOKUA

3	7	6	8	5	2	1	4	9	7	3
8	2	1	9	4	7	6	5	3	8	7
4	9	8	3	2	1	5	6	7	4	2
2	1	5	6	7	4	1	2	3	8	9
9	8	7	6	5	4	3	2	1	9	8
7	6	5	4	3	2	1	9	8	7	6
6	5	4	3	2	1	9	8	7	6	5
5	4	3	2	1	9	8	7	6	5	4
4	3	2	1	9	8	7	6	5	4	3
3	2	1	9	8	7	6	5	4	3	2
2	1	9	8	7	6	5	4	3	2	1
1	9	8	7	6	5	4	3	2	1	9

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Birzikaltu
2 Matxinada

|||UZTARRIAREN APIRILEKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Ixabel Jauregi
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 193. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

ELKARRIZKETA | Ekain Iburguren, 'Lore'

“Bi aldiz pentsatu gabe eman nion baiezkua Loreren papera egiteko eskaintzari”

Ekain Iburguren (Azpeitia, 1996) hezuramaitzen du Lore Katxiporretaren *Haizearen herrira* ikuskizunean. Apirilaren 29an So-reasu antzokiko oholztan izan zen Iburguren ikuskizun hori eskaintzen, baina hark dio oholztara igo zen ez zela Ekain Txou, eta jendeak hori argi izan dezan nahi du.

Nola jaso zenuen Loreren papera egiteko gonbidapena?

Denbora da Pirritx, Porrotx eta Marimotots ezagutzen ditudala, Azpeitian ikuskizunak eskaintzen zituzten aldietan Txantxa Algara-kook beraien aldageletara sartzan ginelako. Iaz, Joxe Mari Agirretxe Herri Hezitzaileen inguruko solasaldi bat eskaintzera etorri zen Sanagustinera, eta ni hura agurtzera sartu nintzen. Nire pailazo koadernoan nuen eskuetan, bertan idazten ditut Ekain Txou ikuskizunerako ditudan ideiak eta bestelakoak. Koadernoan erakutsi nion, eta azken orrian bere sinadura utzi zidan, baita bere helbide elektronikoa eta telefono zenbakia ere. Nire ikuskizunaren [Ekain Txou] inguruko informazioa bidaltzeko eskatu zidan Agirretxek. Bidali nion, eta bi as-



'Haizearen herrira' ikuskizuneko irudia. ||| Uztarria

tera deitu zidan Loreren papera egin nahi nuen galdezka. Bi aldiz pentsatu gabe eman nion baiezkua eskaintzari.

Baiezkoa eman ostean...

Bilera batzuk egin genituen aurrena, eta haietan azaldu zidaten zein izango zen nire egitekoa eta zein izango zen gidoia. Entsegu ez ere hitz egin genuen, baita agenda prestatu ere. Andoainen hasi ginen entseatzan. Aurreneko emanaldia, berriz, Sopelan eskaini genuen.

Argiak, atrezzoak, jantziak... dena berria zen zuretzat. Zer sentitu zenuen lehen aldiz oholztara igotzean?

Ez nengoen urduri, lasai irten nintzen ikuskizuna eskaintzera; izan ere, oso fresko geneukan gidoia, entseguak bukatu berri genituen. Beste ikuskizun bat gehiago izango balitz gisan irten nintzen ikusleena aurrera.

Lore hezuramaitzen duzu. Nolako da?

Pupuk eta Lorek ez dute sexurik; Pupu ez da mutila eta Lore ez da neska. Bi nortasun mota irudikatzen dituzten pertsonaiak dira. Pupu beti jolasean eta bihurrikerietan ibiltzen da. Lore, aldiz, goxoagoa da, zintzoagoa.*

||| Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

EFEMERIDEAK |||||

1521

Loiolako Inazio zauritu zen Iruñean.

1801

Uholde izugarriak. Uholde handiak izan ziren.

1975

Hirugarren Mailara. Lagun Onak futbol taldea lehen aldiz igo zen Espainiako Hirugarren Mailara.

1984

Xoxoteko aterpea zabaldu zuten maiatzaren bukaeran.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria.*

BIDEOAK |||||



20. Korrika Azpeitian.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Abendaño poligonoa, 2
Tel. 943 135 016
Zeratz.

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 143 443
Zumaiá

San Juan, 15 edif. AXIRI
Tel. 943 852 110
Azkoitia.

Gesolaga Kalea, 15
Tel. 943 148 241
Zestoa

Osteoporosia

Osteoporosia hezurretako gaixotasuna da. Horren ezaugarri nagusia da hezurak hauskor bihurtzen dituen mineral dentsitate txikia.

Elikadurak garrantzia handia du gaixotasun horretan, eta mineral beharrak oso kontuan izan behar ditugu. Kaltzioaz gain, magnesioa, fosforoa eta proteinak ere protagonismo berezia dute.

Sodio (gatz) asko duten dietak arrisku faktore dira osteoporosiaren aurrean; emakumeetan, bereziki. Sodioa, asko hartzen badugu, giltzurrunen bidez kanporatu behar dugu, eta harekin batera arrastatzen da kaltzioa ere. Ondorioz, hezurren dentsitatea jaitsi egiten da. Finean, gomendagarria da sodio gutxi duen menu bat osatzea.

Hezur gutxiago sortzeaz eta gehiago hondatzeaz arduratzen diren faktore hormonalez gain, D eta K bitaminek ere badute zerikusia. K bitamina hosto berdeko barazkietan topa dezakegu, eta D bitamina eguzkiaren izpiekin sintetizatzen dugu.

Beraz, ariketa fisikoa aire librean egitea eta elikadura egokia jarraitzea beharrezkoak dira gaixotasun hori saihesteko eta tratatzeko. Elikadura plan horretako protagonistak dira fruitu lehorrak, hosto berdedun barazkiak, egoskariak, esnekiak...

Ondo jan, asko ibili eta eguzki izpiez gozatul*



aitziber aizpuru

FELIX BIDASORO ogi banatzailea



1. Ogi on baten sekretua?

Denbora.

2. Ogia, zeri laguntzeko?

Denerako. Saltsei eta...

3. Koskorra edo bestelako zatia?

Dena gustatzen zait niri.

4. Noiztik banatzen duzu ogia etxez etxe?

25 urte baino gehiago dira.

5. Zenbat ogi saltzen dituzu egunero?

170-200 artean.

6. Krisia antzeman al duzue?

Konpententzia gehiago.

7. Bezeroekin ondo moldatzeko, zer?

Zintzo ibili behar da.

8. Dietan hastean, jendeak ogia jateari uzten dio...

Ogia, tamainan janda, ez dut uste txarra denik.*

Ihintza Elustondo

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

INTZA ETXESERIA AGIRREZABALA
Fisioterapia - Osteopatia

M-59 4011 - 5015-48 (Arribea) - X-0104019

Koh Tao
OSAGARRIAK
Toua Etxidea, 3 • Tel.: 943 685 195
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Alar
merceria
Lurietako Traxo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

Ingeleseko ikastaroak
* Londres, Dublin edota Belfasten.
* Ingeleseko ikastaroak 8 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat.
* Helduentzat negozio edo aisialdirako ikastaroak.
* Iniziatibak eskolak urrutellan, helduentzat.
© Tony Byrne 085 20 28 75

ORDULARI

Jose de Arriba, 10
Tel: 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi ARTE ETA DISEINU ESKOLA ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak** (haurrak) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30
● **Talla** 18:30 - 20:00
Jose Arteze kalea, 3
943 81 28 08
arteadiseinu@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

Harizko soka luzea

1967ko maiatzaren 2an ireki zen Nerea denda. Mende erdia bete du Bustinzuriko Errebalean Roxarito Ibaietak martxan jarritako negozioak. 📧 Mailo Oiarzabal

Data seinalatuaz hitz egiteko beste egun seinalatu batean egina du hitzordua Uztarriarekin Roxarito Ibaietak (Azpeitia, 1945). Orain dela 50 urte, 1967ko maiatzaren 2an, ireki zuen Ibaietak Nerea denda. “Orduan ez zegoen euskaraz ipintzerik, ezta pentsatu ere”, eta Lanas Nerea izan zen aurrena; gerora etorri zen Nerea Eskulanak izena. 50 urte bete ditu negozioak eta bere urtebetetze egunean tokatu zaio sortzaileari mende erdiko ibilbideaz hitz egitea. Telefono deiz eta zorion mezuz zipriztindutako elkarrizketa dendaren goiko solairuan eman du, familiaz eta familiako argazkiz eta oroitzapenez inguratuta.

Bustinzuriko Errebaleko 15. zenbakiko denda, puntua egiteko hariak edota etxerako jantziak zein oihalak erosi nahi zituzten azpeitiar askoren erreferentzia ez ezik, Ibaieta sendiaren elkargune eta bigarren etxe bihurtu zen aspaldi. Sortzaileak ekindako bideari batzen joan zitzaizkion haren ahizpak; familia-ko negozioa izan da beti eta hala izaten jarraitzen du. Arantxitik eta Marianek jarraitzen dute dendan lanean, eta Lurdes ere aritu zen lehen. Badira hamabi urte Roxaritok erretiroa hartu zuela, baina horrek ez du esan nahi denda utzi duenik, “ezingo nuke laga. Ama batek edo aita batek bere umea beti izango du bere ume; eta hau ere bada nire umea. Egunen batean, joaten naizenean, besteren batzuk segituko dute ala ez, baina niretzat



ezinezkoa da hau uztea. Nire izaerak, gainera, ez dit agintzen, ez dit uzten jendearekin ez egotea”.

Umetatik lanean

Umea zela hasi zen Roxarito Ibaieta etxetik kanpo lanean, 11 urterekin, ume zain, eskola utzita. “Asko ginen etxean eta orduan horrela izaten ziren kontuak. 13 urterekin, berriz, txapa tailer batean hasi nintzen. Hogei bat emakume izango ginen han, baina, noski, gizonaek askoz gehiago ziren, eta, nonbait, haiei entzundako biraoak errepikatzen hasi nintzen. Eta gurasoek erabaki zuten ezin nuela han jarraitu, biraoak ikasten!”. Horrela,

15 urterekin Debako Iriondo Hotelean hasi zen lanean eta bost urte egin zituen han. Argi zeukan, ordea, “beste zerbait” egitea nahi zuela. Hala, hotela utzi eta Donostiako akademia batean hasi zen jertseak egiten ikasten; bitartean, Azpeitian lokalak begiratzen hasi zen, denda bat jartzea buruan.

Bustinzuriko Errebalearen Arana aldeko sarreran aurkitu zuen, azkenean, behar zuena. Nicolas Zubeldiarena zen eraikina, garai batean suhiltzaileen etxea izandakoa; hantxe, beheko solairuan, denda eta lantokia jarri zituen Ibaietak, “eta jertseak egiten hasi ginen”. 22 urte zituen Roxarito Ibaietak negozioa martxan jarri zuenean, eta Nerea izena jartzea erabaki zuen, “neurea zelako. Neure izena jartzerik ez nuen nahi, baina bai zerbait adierazgarria izatea. Eta neuk ez diet nire alabei Nerea jarri; iloba daukat, alabari Nerea ipini ziona, eta egundoko poza eman zidan”.

Dendaren egungo egoitzara orain dela 34 bat urte aldatu ziren, ezinbestean aldatu ere, Zubeldiaren etxea bota egin behar zutelako. Buruhauste eta gorabehera bat baino gehiago ekarri zizkien aldaketak, baina ez zuten urrutira joan beharrik izan; Errebaleko kale estua gurutzatu eta hantxe ireki zuten denda berria, lehengotik oso gertu. “Ez genuen nahi kale honetatik alde egiterik eta hau hartu genuen. Bazeuden hutsik eta salgai zeuden beste lokal batzuk, baina ikusten genuen guretzako hau egokiagoa zela. Denda ikaraga-

ria izan gabe, behean saltokia eta goian makinak jartzeko aukera ematen zigun, eta behean ere bazuen beste pusketa bat biltegi moduan erabili ahal izateko. Hau hartu eta handik bi edo hiru urtera bota zuten lehen-goia”.

Aldaketak, irauteko

Denda lekuz mugitzea ez da izan, ordea, mende erdi honetan Nereanean gertatu den aldaketa bakarra. Hasierako urteetan herriko ikastetxeentzako lan asko egiten zutela kontatu du Ibaietak; Miserikordiko, Jesuitinetako eta Esklabetako uniformeak egiten zituzten. Jauzi bat eman, eta beren modeloak sortzen eta josten hasi ziren, “denak puntuzkoak”; umeentzako jantziak izan ziren aurrena, eta helduentzakoak, gero. “Bezeroak genituen Altsasun, Orion, Irunen, Donostian, Zarautzen, Oñatin, Tolosan... Herri bakoitzean denda bakarra izaten genuen; Donostian bakarrik izan genituen bi”.

Nereanekoen jantzigintza eredia artisaulana zen neurri handi batean. “Modeloak sortu eta jantziak egin, geuk egiten genuen dena hemen, hasi eta bukatu”, dio Ibaietak. Urteekin, industrializazio gero eta handiagoari zein merkatuaren konpetentziari aurre egitea gero eta zailagoa bihurtu zen, eta jantzigintza uzten joan ziren. Negozioa ireki eta hogeitatu urtera, berriz, eskulanak erakusteari ekin behar ziotela erabaki zuten. Udalean proposamena aurkeztu, harrera ona izan, eta Sindikatu Zaharrean hasi ziren Ibaietatarrak puntua, gurutze-puntua, kakorrazt-lana edota ehoziri-lana erakusten; eta lan horretan jarraitu dute gaurdaino.

“Askok esaten dute enpresek birziklatzea behar dutela, eraberritzea, aurrera egin nahi badute. Ba, guk, 50 urtetan aldaketa pila bat



1. Aurreneko denda eta lantokia egon ziren eraikina, botatzen hasi ziren egunean ateratako argazkian. **2.** Nerean lan egin duten edota egiten duten lau Ibaieta ahizpak: Lurdes, Arantxita, Marian eta Roxarito. **3.** Ibaieta ahizpak denda zaharra egon zen tokian dagoen parketxoan. ||Alex Berasategi

eduki ditugu; ondo ikusi dugu hala dela, bai horixe! Hamar urtetik behin, hortxe nonbait, egin behar izan ditugu aldaketak”. Jardueran bezala, produktu eskaintzan egin behar izan dituzte aldaketak, baina bada saltzeari utzi ez dioten zerbait: artilezko hariak. Puntua modatik pasatu eta salmentak %20ra jaitsi ziren urteetan ere, hariak ez zituen bazterrean utzi Ibaietak, etxean ere kentzearen alde agertu zitzaizkion arren. “Hariak gure ikurra izan dira”, dio. Haiei tiraka sortutako sokak ez du etenik, oraingoz.*





FABRIKAZIOAREN ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO DE FABRICACIÓN



Prestakuntza Integratua:
Zure neurria egindako ibilbidea **ELGOIBARREN**

DBH amaituta:
Erdi-Mailako HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

Batxilergoa amaituta
Goi-Mailako HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

Goi-Mailako Heziketa Zikloa amaituta:
Ingeniaritza Dualeko UNIBERTSITATE GRADUA

eredu duala · erronken bidez · eleanitza

Informazio saioa: Maiatzak 20, 11:00 etan

Zatoz eta ezagutu gaitzazu! www.imh.eus / Bertaratzea baieztatu 943748265 telefonoan.

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	8138 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	8153 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (MAIATZA)

1-11-16-24-31

Beristain (Azpeitia).
943811949

4-9-13-14-19-25

Eizagirre (Azpeitia).
943811274

2-8-15-20-21-26-29

Aranburu (Azpeitia).
943811949

5-6-7-12-18-23-30

Alberdi (Azpeitia).
943815974

3-10-17-22-27-28

Jacome (Azpeitia).
943 080258

GAUEZ, URTE OSOAN

Beristain (Azpeitia).
943 811949

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzaren 16an eta 31n
izango dute hitzordua,
(17:00-21:00), anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuaren: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



DESFIBRILADOREAK.

Duela hilabete batzuk desfibriladore berriak jarri zituen udalak. Igerilekuan, kiroldegian, Garmendipe futbol zelaian, Izarraitz frontoian, Soreasun eta Udaltzaingoa ren bi kotxe elektrikoetan daude eskuragarri.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

MARTA CARMONA

Dohaintzan eman du ilea

“Nire esku dagoen guztia egingo dinat besteei Laguntzeko”

Haur minbizidunentzat ileordea egiteko dohaintzan eman du 25 zentimetroko txirikorda azpeitiarrak. 📌 Ainitze Agirrezabala

Ile-apaindegian izan berri haiz, baina moztutako ilea ez diten erratzarekin jaso eta zaborretara bota.

Haur minbizidunentzat ileorde onkologikoak egiten dituen Malagako erakunde baten iragarkia ikusi ninan Instagramen. Kimioterapia, erradioterapiaren, erreduren edo alopeziaren ondorioz ilea galdu duten 5 eta 14 urte arteko neskentzat egiten dituzten ileordeak, debalde. Bi modutan lagun daiteke: ekarpen ekonomikoa eginda edo ilea dohaintzan emanda. Azken kasu horretan, nahi dudan haurarentzat ileordea egitea eska dezaken. Ileorde onkologikoen merkaturan 2.000 eta 3.000 euroko balioa diten.

Dohaintzan ematen den ileak zer baldintza bete behar ditu?

Ilea garbia eta lehorra entregatu behar dun, eta, gutxienez, 20 zentimetro luze izan behar ditin. Nireak 25 inguru neurtzen zinan. Ez din axola metxak edo permanentea izateak.

Zerk bultzatu hau ilea ematera?

Oso gertu bizi izan dinat minbizia, bi aitona gaixotasun horrekin hil hitunan. Nire esku dagoen guztia egingo dinat besteei laguntzeko.

Zenbaiti puntak mozteak ere pena ematen zion...

Ni ere horietakoa naun, ile-apaindegira joan eta negarrez hasteko kapaza naun. Beti oso luzea eduki dinat, gerrirainokoa. Baina ez zai-gun batere kostatzen. Kontuan izanda halako gauza txikiekin asko lagun diezaiokegula beharra duen horri, bada, merezi din!

Nolakoa da prozesua?

Abenduan izan ninan egitasmoaren berri, baina artean ez ninan oso luzea ilea, eta luzatzen uztea erabaki ninan. Espainian ez ezik, elkarteko bazkide diren Euskal Herriko ile-apaindegietan doan mozten dituen ilea. Donostian eta Eibarren zagon horretarako aukera, baina, erosotasunagatik, beti joaten naizen ile-apaindegian moztu ninan. Ondoren, mezularitza zerbitzu bidez bidali ninan txirikorda.

Zer esan diten etxeok eta lagunek?

Beharra dutenei laguntzeko kontzientzia betidanik izan dinagu etxean. Gurasoak, esaterako, Medicos Sin Fronteras erakundeko bazkide ditun. Ilea luzatzen zaidanean, agian, berriz emango dinat dohaintzan.✘



1

1. Marta Carmona ilea moztuta. 2. Minbizia duten haurrentzat ileordeak egiteko eman du dohaintzan 25 zm inguruko txirikorda Carmonak. 3. Gerrirainoko adatsa zuen Carmonak ilea moztea erabaki zuenean.



2



3

Pisa neurria

Ahaztuta neukan, zeharo ahaztuta. badakizue, pisa (maiuskulaz, ibai) azterketaren emaitzak, ikasleei egiten dizkieten azterketa test neurgailuak. emaitza txarrak gurean, bikainak beti finlandian eta han eta hemen eta nafarroan, baina ez euzskadi gurean. gogoan josita ez izanagatik ere, gogoan dauzkat egunkariaren orrialdeetako titularrak, emaitza txarrak argudio, erakundeetako ordezkari gorenaren kopetak belzteko moduko txarrak. baina igual ez ziren hain txarrak ere, ze pisa notak jaso eta hurrengo egunean oilarra baino harroago zebiltzan berriz ere gure agintariak, ikasleak ibiltzen diren bezala, alegia, egun batean jasotako zero ez nahiko eta gainditu gabeek eragindako min eta tristurak ahaztuta dauzkate haiek ere hurrengo egunean. eta eskerrak ahaztuta dauzkaten. eta ondo egiten dute, ze ba ez ba. azkenean, zer inporta europak egindako azterketa batzuen emaitzak. azkenean, zer inporta, beraiek kulparik batere ez daukate eta. ikasleek ez daukate kulparik. ez gure institutuko ikasleek behintzat. gainera, erreferentziazkoa da gure institutua gasteizen eta bitorriyan, baina ez galdetu zer esan nahi duen erreferentziazkoa izateak. irakasleen arabera, esan nahiko du bertako ikasleek emaitza onak ateratzen dituztela jaurlaritzak eta bateko eta besteko erakundeek egiten dituzten azterketa test neurgailuetan. irakasleen arabera, erreferentziazkoa izateak ez du esanahi konkreturik, barregura ematen die hori aditzeak. gurasoen arabera, iritzi kontrajarriak ditugu. batzuen ustez, esan nahi du institutua ona dela, besterik gabe, edukiak metodologiak didaktikak zertan diren begiratu gabe ere. beste batzuen ustez, hutsaren hurrengo, zeroren hurrena da institutuaren erreferentziazko lelo hori, guraso askoren neurrikoa, alegia. kulpaa ez da eta ikasleena, gurasoena baizik. lehengoan ikusi nuen neure begi bakar honekin, neure bi belarriez aditu nuen, aditu nituen gurasoen esanak bilera



|||||||miel a. elustondo|||

|||Eta harritzekoa ere ez da, tripandikeria da gure intelektuaren pisa neurri burutsua

batean. kasu hartan, ikasle truke bat zen aitzakia. gureak frantziara astebetetz, frantziakoak hona zazpi egunez. frantsesa praktikatzea da helburua gurei dagokienez, gaztelaniaz trebatzea haiena. trukea antolatzeke bilera institutuan, eta guraso burutsuen kezka burutsuak burutsu ageri. "han izan zenean, gure alabari entsalada ogitartekoa eman zioten jateko egunerok... gureari espagetiak ketchuparekin ipini zizkioten... gure mutilak kontaktatu du etxe hartan beganoak zirela, eta ez zuela xerradarik usaindu ere egin... hona etortzen direnean txorizo ogitartekoa ipiniko diet nik... eta arrautza frijituak patata frijituak eta txorizo frijitu mutur bat... hona etortzen direnean ikusiko dute nola jaten dugun hemen..." eta horrela bilera hartan guraso burutsuen artetik sortu ziren galdera burutsu guztiak, eta harritzekoa ere ez da, tripandikeria da gure intelektuaren pisa neurri burutsua.*



Ate Irekiak Maiatzak 12

Fp
ELGOIBAR 2017-2018

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, ENPLAERAMENDUA
ETENKIDETASUNA

HEZKUNTZA, ENPLAERAMENDUA
ETENKIDETASUNA



ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Automozioa
- Gizarteratzea



azkarra



erosoa



ikusezina

**Entsaladarako tomatea
erosteko dendarik egokiena**

Hainbat mota ezberdin:

- RAF extra
- RAF 2. mailakoa
- Kanpokoa
- Euskal tomatea
- Kurutzia (Azkoitia)

...eta baserriko letxuga freskoak.

**IGANDE ETA
JAI EGUN GUZTIETAN
GOIZEZ ZABALIK**

